



## ULIAKO LORE BARATZEAK

# Parke bat, herritarren proiektuak aurrera ateratzeko



Garazi Zabaleta  
@tirikitran

“Ulia auzoa oso sakabanatua da, ez dugu elkarbizitzarako tokirik. Hori eskaintzen digu parke honek”. Leire Rodrigezez Uliako Lore Baratzeke kideak argi du auzoari parkeak ematen dion aberastasuna. Urteak itxita zeramatzen parkeko atek zabaltzeko eskaerarekin hasi zen lehenik auzo-elkartea, eta 2013an Uliako Lore Baratzeen proiektua gehitu zioten eskaerari. Auzo-elkartearen lanari esker 2014ko urte amaieran udalak partzelaren kudeaketa lehiaketa publikora atera zuen eta Uliako Lore Baratzeak proiektua izan zen aukeratua. Parkea kudeatzeko batzordea sortu zuten orduan: ideia lursaila herritar guztientzat irekita egotea da ahalik eta denbora gehien, lore-baratze guneak antolatzeke aukerak emanez. Oraingoz parkeko zenbait zati dituzte martxan.

**Proiektu anitza, auzotar guztiei irekia**  
Egitasmoaren aniztasuna azpimarratu du Rodrigezek: “Proiektuak ez du inongo loturarik alderdi politiko edo ideologia zehatzekin. Hemen bost minutu baino gehiago egoten denak segituan ulertzen du hiriarentzat altxor bat dela parkea”. Herritarren proiektuak eta ilusioak aurrera ateratzeko

espazioa da, “benetako bizi publikoa” egiteko tokia. Esanguratsua da, adibidez, urtarrilean Eusko Jaurlaritzak Elkarlan saria eman izana proiektuari ingurumen eta gizarte kohesioan egin-dako lanagatik.

### Parkea edo urbanizazioa, biak ez

Azken hilabeteetan, presa handiz jarri du martxan Donostiako Udalak parkean 70 etxebizitza egiteko hirigintza egitasmoa. Udalak etxebizitzaren plana parkeko jarduerarekin bateragarria dela dioen arren, parkearen babesleek argi dute hori ezinezkoa dela: “Eraikitzen has-tean hoditeria, argiteria edota errepidea egin beharko dituzte. Beraiek parke moderno bat nahi dute, orain daukaguna hori baino askoz gehiago da”. Otsailaren 25eko Udal Plenoan onartu zuten etxebizitzaren plana EAJren eta PSEren botoekin. EH Bilduk eta Irabazik, berriz, Ategorrieta-Ulia eta Intxaurren Zaharra auzoetan galdeketa bultzatuko dutela adierazi zuten. Uliako Lore Baratzeke kideak ere plenoan izan ziren, eta parkea babesteko lanean jarraituko dutela garbi utzi zuten: “Espekulazioaren aurrean, bestelako hiri eredu behar dugulako”. ■

## BIZI BARATZEA

**Gure kultura iraultzen ari den liburua**

Bloga: [www.argia.eus/bizi-baratzea](http://www.argia.eus/bizi-baratzea)  
@bizibaratzea



### Eskaerak:

943 371 545 · [www.argia.eus/denda](http://www.argia.eus/denda)

Salneurria: 23 €  
Harpidetzat: 19,50 €

## AURKEZPEN HITZALDIAK

### Apirilak 8: Ezkio-Itsaso

Santa Luzia-Anduaga Kultur Etxean,  
18:30ean.

### Apirilak 9: Iruñea

Autobus geltoki zaharrear, Ekonomia Solidarioaren 4. Azokan. 12:00etan aurkezpen solasaldia. Egun guztian zehar, Landare-Karrikiri-ARGIA gunean landareen kontsultategia.

### Apirilak 10: Zubietta (Malerreka)

Gazte Asanbladak antolatuta. Lekua eta ordua zehazteke.

### Apirilak 13: Barakaldo

San Bizenteko kultur etxean, 19:00etan.

### Apirilak 14: Murgia

Lekua eta ordua zehazteke.

### Apirilak 15: Usurbil

Gaztetxean, afari beganoaren bueltan.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

[sustapena@argia.eus](mailto:sustapena@argia.eus)

📞 943 371 545